

## IRABAZI ITURRIAK

Ekintzak antolatu, lokala egoera onean mantendu eta asteburuko ekintzak antolatzeko beharrezkoak izango dira diru sarrerak izatea. Herriko Udalaren eta beste elkarte batzuen laguntzak ez dira nahikoak guztia behar bezala aurrera emateko, beraz, hileroko diru kopuru txiki bat ordaindu beharko dute elkarteko kide izan nahi dutenek. Horrez gain, ekintzaren arabera, parte hartu nahi duten bezeroek batzuetan diru gehigarri bat ordaindu behar izango dute, baina hori bai, garraio elementuak enpresak bermatuko ditu.

Diru horren ordainketa bide ezberdinetatik egin ahal izango da, eta bezeroak erosoena iruditzen zaion bidea hautatu ahal izango du. Ordainketa hau:

- Bankuko transferentzia bidez
- Aplikazio modernoen bidez (bizum)
- Lokalera bertara hurbildu eta eskuz edo txartel bidez egin daiteke.



Horrez gain urtean zehar dirua lortzeko hainbat kanpaina martxan jartzea pentsatu dugu. Gabonetan adibidez, loteria saldu eta otzara bat zozketatu, urtean zehar beste bizpairu otzara zein zozketa antolatu... Gainera aurretik aipatutako diru sarrerak kostuei aurre egiteko nahikoak izango ez direnez, enpresako sustatzaileok ikastaroak emango ditugu gure ezagutzetan oinarrituz.

Ez dugu ahaztu behar, BBK fundazioaren Ekin proiektuan parte hartuko dugula eta Udala izango da lokal bat proiektuaren zerbitzura uzten duena.

**bbk** Fundazioa 

